



4.5. DIRULAGUNTZA LERROA: XXXIX. MADALEN LITERATUR SARIAK – 2026. OINARRI ESPEZIFIKOAK.

1.- Sarien xedea.

Lerro honen xedea da Errenterian bizi edo ikasten duten gazteen artean literaturarako zaletasuna eta euskaraz idazteko gogoa piztea.

2.- Dirulaguntzak zein partidaren kargura egingo diren eta emango diren dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa

Dirulaguntza hauek 2026ko aurrekontuko partidaren kontura izango dira. Partida hori ondorengoa da:

1030.480.02.335.10

Dirulaguntzak: sariak: 3.500 €

3.- Pertsona onuradunak, parte hartzeko baldintzak eta horiek egiaztatzeko modua.

- a) Errenterian erroldatuta egotea edo Errenteriako Derrigorrezko Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko edo Lanbide Heziketako ikastetxeren bateko ikasle izatea.
- b) Euskaraz idatzitako lana izatea.
- c) Ez da eduki sexista, homofobo eta xenofoborik onartuko.
- d) Aurkeztutako lanak jatorrizkoak eta argitara gabeak izatea.
- e) Partaide bakoitzak lan bakarra aurkeztuko du, ordenagailuz idatzia, DINA-4 neurrian eta lerroarte bikoitzean. Letra mota Arial edo antzekoa izango da, eta tamaina: 12.
- f) Poesia sailean, gutxienez 1. eta 2. mailakoek 24 lerro idatzi beharko dituzte; 3. mailakoek 32; eta 4 eta 5 . mailakoek 40 lerro. Bertsolaritza lehiaketatik kanpo geratuko da.
- g) Prosa sailean, gehienez ere, 2 orrialde idatzi beharko dira.

4. Eskararekin aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Lanak posta elektronikoz aurkeztuko dira, eta dokumentuak zuzenean erantsiko zaizkio postari. Partekatutako dokumentuak EZ dira onartuko. Helbide honetara bidali behar dira lanak: euskara@errenteria.eus

Bidalitako mezuaren gaia, MADALEN SARIAK izango da, eta egileak bi artxibo bidali beharko ditu eta doc, docx, edo odt luzapena duten dokumentuak soilik onartuko dira.

I. Lehenengo ARTXIBOA: Idazlana.



- Dokumentuaren hasieran XXXIX. MADALEN SARIAK idatziko da.
- Zein mailatan parte hartzen duen.
- Prosa edo poesia den.
- Izengoitia.
- Idazlanaren izenburua eta jarraian idazlana.

II. Bigarren ARTXIBOA: Izengoitia, Datu hauek jasoko dira:

- Izengoitia.
- Idazlanaren izenburua.
- Kategoria (prosa edo poesia)
- Ikastetxearen izena.
- Ikasmaila.
- Egilearen datu pertsonalak: izen-abizenak, adina, helbidea, posta elektronikoa eta harremanetarako telefono bat. Tutorearen kontaktua gehitu (aita, ama, ...etab).

OHARRA. Idazlearen argazkirik ez da bidali behar. Sarituen argazkiak gerora eskatuko ditugu.

5. Epaimahaia

Epaimahaia udalak izendatuko du eta bere erabakia apelaezina izango da. Epai-mahaikideen izen-abizenak gutun-azalak ireki baino lehen publiko egingo dira. Gutxienez bezperan udal webgunean argitaratuko da.

6. Sariak



1. MAILA / POESIA ETA PROSA	LH 2. zikloa	3. eta 4. maila	1. saria	130 €ko bono bat material didaktikoa erosteko
			2. saria	90 €ko bono bat material didaktikoa erosteko
			3. saria	60€ko bono bat material didaktikoa erosteko
2. MAILA / POESIA ETA PROSA	LH 3. zikloa	5. eta 6. maila	1. saria	150 €ko bono bat material didaktikoa erosteko
			2. saria	100 €ko bono bat material didaktikoa erosteko
			3. saria	70 €ko bono bat material didaktikoa erosteko
3. MAILA / POESIA ETA PROSA	DBH 1. zikloa	1. eta 2. maila	1. saria	160,00 €
			2. saria	110,00 €
			3. saria	75,00 €
4. MAILA / POESIA ETA PROSA	DBH 2. zikloa	3. eta 4. maila	1. saria	195,00 €
			2. saria	135,00 €
			3. saria	100,00 €
5. MAILA / POESIA ETA PROSA	Batxillergoa	1. eta 2. maila	1. saria	230,00 €
			2. saria	160,00 €
			3. saria	110,00 €

Horrez gain, accesit opariak ere eman ahal izango dira saririk lortu ez baina aipamen berezia merezi dutela kontsideratzen den lanentzat.

Sariak eman gabe geratu ahal izango dira epaimahaiak kontsideratzen badu nahikoa maila ez dagoela.

Legeari jarraituz, sariei dagozkien zergak aplikatu dakizkieke.

7.- Dirulaguntza ordaintzea

Dirulaguntzaren ordainketa Udal Hizkuntza Politikako zinegotzi delegatuak dirulaguntzak banatzeko behin betiko ebazpena sinatu ondoren egingo da. Ebazpen horretan jasoko dira irabazleen izen-abizenak eta Udaleko webgunean argitaratuko dira.

Saria dutenei, diploma eta gutun-azala emango zaie.

Gutun-azalean ondorengoa jasoko da:

Saria dutenek



- 1. eta 2. mailakoek, herriko liburu denda batean gastatzeko balea.
- 3., 4. eta 5. mailakoek, sariaren zenbatekoa jasotzen duen txartel bat eta dirua sartzea nahi duten kontu korronteko datuekin betetzeko dokumentu bat, Hizkuntza Politikarako Sailera ekarri beharko dutena edo postaz bidali euskara@errenteria.eus helbidera. Kontu korrontea saritutako pertsonarena edo haren guraso edo tutoreena izan daiteke.

8.- Aurkeztutako lanen jabetza

Deialdian parte hartzeak suposatuko du lan sarituen egileek onartzen dutela lan horiek Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe Creative Commons lizentzian (BY-NC-ND sigla ingelesez) ezarritako baldintzetan erabiltzea.

<https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.eu>

Lizentzia horrek xedatzen du obra kopia, banatu eta publikoki erabil daitekeela, betiere jatorrizko egilea aipatzen bada eta ez bada merkataritzarako edo lan eratorrietarako erabiltzen. Lan eratorria da dokumentu editatua, itzulua, hirugarrenen materialekin bateratua, formatu aldatua duena edo edozein aldaketa izan duena.

Sarituak izan ez diren lanak ezabatu egingo dira.

9.- Lanak aurkezteko epea

2026ko apirilaren 10ean 24:00 arte.

Ohar garrantzitsua: deialdi hau egin da ERREENTERIAKO UDALAK 2026. URTEAN DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEKO OINARRI OROKORREI jarraiki. Hemen zehaztu gabeko gai orotarako oinarri horietara jo beharko da.

INFORMAZIOA: Udal Hizkuntza Politika departamentua, 943 449613, euskara@errenteria.eus, Merkatzar (Pablo Iglesias kalea 3).